

(EUSKERAREN AUZIARI BURUZ)

EZ BAT ETA EZ BESTE

Badirudi gaur bi taldetan zatituta daudela, euskaltzaleak, ots, gure izkuntza maite dutenak.

Eta izan ere, euskera bera auen eta aien maite-gaia izanik, nola gerta liteke denak alkarren aurka arkitzea? Gure artean bizi izan ez den edonork betiko auzi au ikusiko ba lu, zearo arrituta geldituko litzake noski.

Eta nik neuk ere, aspaldidanik euskeraren alde saiatu ta euskaltzaleekin itzegin ondoren, ez dut gertaera garbi ikusten: eta, orren-gaitik, denak borondate onez euskeraren alde bakarrik lanegin nai dutela ezin siñista dezaket. Iritzi au izatea gogorra da; bañan ez dut uste, egia esan, euskaltzaleak aspaldi ontan oreka aundia izan dugunik. Euskera baño, bere burua altxa nai bide-du bakoitzak bere ir-tzien bidez.

EUSKALTZALEEN JOMUGA BAKARRA

Euskera da, ez beste, euskaltzale guziok billatu ta bizi-arazi bear dugun gauza bakarra. Txaldankeria dirudi au esateak; bañan bearezkoa da, alaz ere.

Euskaltzaleok, euskera-zaleok beraz, euskera maite bear dugu. Eta euskera ez da guk nai duguna, edo nai dugun bezelakoa, berbera de na baizik. Euskera ez da gure egitekoa: or dago, or bizi da, erriaren aotan, eta den bezela artu bear dugu. Sorkari biziak dira izkuntzak, urteetan zear gu gabe bizi izan diranak, eta gero ere geu gabe bizi ditezkenak. Beren bizi-legeak dituzte, ta aien bizitza ta izakera gal-tzorian ez jartzeko, aietxei lotu bear, mintzo-legeak gordetzean baitatza izkuntzen bizia bera.

Euskera, jaunok, ez da garbi, ta ez mordollo ere. Geu gera garbi ala mordollo dakusagunak. Euskera euskera da: orra ezinbestezko idorokunde nagusia. Farregarri, alegia!!!...

Euskera garbi ala mordollo ote den galdetzen ba zaio jatorrizko euskaldun bati, ez dut uste erantzuten jakingo duenik. Eta ala bear.

Euskera euskaldunen mintzabidea izan deño, au da, beren izkuntza bizia izan deño, iñork ez ditu bere begiak euskeran jarri. Alde ontatik, Larramendi izan dugu dudarik gabe euskeraren auldurari, oarkabeen agian, lenbizikoz igarri diona. Ez dezagun itzezin gaurko gure mende ontan euskerari buruz egin diran astakerietaz; euskaltzaleok agertu dugun "gutxietsi-miña" tamalgarria izan bait-da benetan.

Orrengaitik, konpleju guziak alde-bat utzita, euskera euskera dela aitortu bear dugu leenik; eta euskera dela soilki euskaltzaleok maite bear duguna.

ASMATZEKO ESKUBIDERIK EZ DUGU

Au da esandako ortatik datorren lenengo ondorea: ezin asma dezakegula deus ere.

Askotan euskeraz izkribatzen dutenak erabiltzen dituzten itz berriak, badute euskera jatorrean beren kidea; eta idazleak izkuntza bear aña ezagutzen ez dutelako, ontzat emango al ditugu beren ut ak?

Badira, noski, egungo kulturatik datozen milla asmazio ta gogai berri, euskera zaarrean barbarik ez dutenak. Oietarako, adirazi nai dutenerako euskal itz egoki-egokia ez ba dago, beste izkuntzetatik artu bear da lasai, euskeraren legeai dagozkien aldakerak eginda, erdera guzi-guziak egiten duten bezelaxe.

Euskal itz guztiz egokia atera ba diteke, ordea, edonork uler dezakena, ontzat eman diteke asmatzea, euskal arauak estu-estu bete ezkeru.

Baña bear ez denean asmatu, iñola ere ez.

Alde ontan, lapurditarrak ia eredutzat artu ditezke, itzegiten den euskera biziarri lotu bait zaizkio beti.

Gure mendean oni buruz egin diran nazkagarrikeriak ez dute parerik izan.

Gazteleraz, esate baterako, "grande"-tik "grandeza" dator; eta, orobat, "pobre"-tik "pobreza, ta "rico"-tik "riqueza". Itz oriek guziak ondo sortuak dira.

Bada gure euskera-berrizaleak onelakoak asmatuko dizkizute; "escaso"-tik "escaseza", "pequeño"-tik "pequeñeza", ta abar. "Escasez" eta "pequeñez" esaten dela? Bost ajola aiei: "gaizki esana dago", ta or konpon...

Zer esango genuke guk, erdera mintzabide bizia dugunok, orrelako berrikeriak egingo ba lizkigute "berrizaleak"? Egiten ari ziran gaztelera-berri ori, etzela gaztelera ta ez ezer. Ba, orixe esaten dute baserritarrak eta euskera mintzaira bizi dutenak, gure "euskera berri" ta aren berrikeri asko entzunda: benetako nazka ematen diela.

Euskera euskera da, ta ezin asma diteke ezer. Iñork ezin asma dezake itzik bat ere bere buruz. Sartuko al zaigu au barne-muñetaraño!!

Erriak "erruz" esaten ba du, "erruzkiro" esan bear dute idazle apaintzale batzuk, politagoa delakoan-edo. Okerreri oriek zearo gulgandik erauzi artean, ez dugu euskera salbatuko.

EUSKERA BIZIA TA GIARRIK GABEKO EUSKERA

Mordollozaleak, berriz, beti izkillu bat dute eskuan: "Erriak ala esaten du gaur".

Eta aiei galdetzen diet: "Euskera bizia al dute ori esaten dutenok"? Donostia'ko euskaldun geienak "ikusit nizan" esaten dute, "ikusit zindudan" esan bearrean; eta "nazka ematen dit ori", "ematen dit orrek" esan bearrean. Eta "ematen nau" esan ez ba dute ere, ondotxo dago...

Erderakada nazkagarri oriek Donostia'n bakarrik entzungo ba lira, ez giñake gaizki izango. Baña, guretzako zoritxarrez, toki asko ta askotan entzuten dira alakoak, eta usu.

Erdalkeri oriek, eta beste asko ere, evoluzioaren aldaketak dirala esan omen diteke. Bañan oriek ez dira, nere ustez, evoluzioaren siñaleak, erio-ikurrak baizik.

Gaurko euskerak ez du giarrik, eskualde batzutatako baserrietan ezpada. Gaurko euskera ez da oso bizi: erdal kutsua toki guzietan sartu zaigu, eta erderaz pentsatzen dutenak uste dugun baño askozaz geiago dira. Kultura, esaterako, erderaren bidez artu dugu danok; eta azken baserrietan bizi diranak berak ere, errira jetxi ta erdel itzak eta joskerak atxikitzen zaizkie.

Ortaz, euskeraren Isteria ta gaurko egokera aztertu bear dira edozein gauza erabaki baño lenago. Goitik beraka dijoakigu eusker aaspaldi ontan. Noiz arte izan zuen, ba, bizitasun diña?

Ona gaur erantzun naiko galdera.

Azken menGerarte, nik uste, bizirik eta giardun iraun digu euskerak. Erderakadak lenagotik sartzen asiak zirala ez dut ukatuko; bañan euskotar geienak Euskalerrri osoan euskaldun utsak izanik, euskeraren indarra ta nortasuna gorde ziran.

Au egizatzen ez naiz emen luzatuko. Foruak galdu, kanpotarrak Euskalerriratu, industria asi, ta alako milla gertakari aundi geiago,

azken mendean gertatu ziran. Eta Euskalerrria joan den mendea bukatzean aldatzen eta jatorria: una galtzen asi zela erakustea, ez dut uste gauza zailla denik.

Orrengaitik, Bonaparte, Canpion, eta Azkue'k batez ere egin duten lanari, epaille ta erabakitzalle deritzat, aiek bildu ta ikasi bait zuten euskera bizi-biziaren azkenaldia.

Gaurko erriak, ziñezko euskalduna denean, esaera jatorrak ditu maiz; bañan erio-erderakadak ere askotan.

Azken menderarte, bada euskerak artu zituen erdel itz asko, beretu egin zituela esan diteke. Gaur, ordea, erdal itzak eta joskerak dirala euskera irentsi ta beretu dutenak.

Esaten ari naizen au oñarrigabe ta errelatibu denik ez dut uste.

Orain arte gorde diran verbu-joko batzuek, gaur galdu dira; eta, ain zuzen ere, joko oriek ziran erderaz itzulera egokirik etzutenak.

1900 arte aldaketa berezkoa izan zena, beraz, gaur ondaera besterik ez da, eta ezin eman diteke ontzat, nere ustez.

Jenio-galtze ori zeatz askotan nabaitzen da. Mendiburu'k, esate baterako, ez dizue beñere "sartu naiteke" esango, eta orrelakoak, "sar naiteke" baizik. Gaur, ordea, sarri entzuten da "sartu naiteke". Nere ustez, euskeraren berakak ondatu digu esaera zaarra ta jatorra.

LITERATURAREN LAGUNTZA

Orain dela gutxi arte bere giarra gorde ba du euskerak, zer balio du, izkerari buruz, euskal literaturak? Asko balio dezake; baña galgarria ez dedin, arretaz irakurri bear da.

Aspaldiko euskal liburuak izkribatu zituztenak ederki baño ederkiago zekiten euskeraz, guk baño izkuntza biziago zuten, eta beren izkribuetan bereala agertzen da beren bertute ori.

Axular, Agirre, Añibarro, Mogel edo Kardaberatz'en liburuak artuta, erdalkeri ta joskera txar izugarrien artean, euskeraren benetasuna dario aietatik, eta atsegiña ematen du aien induria ta oparotasuna ikusteak.

Ona eu-kal literaturaz baliatzeko nere ustez eman ditezken lau oar gogoangarri:

- 1) Sintaxis aldetik, kontuz ibilli bear da, erdal joskera bait-dute askotan antziñako liburuak.
- 2) Morfologiari buruz, asko ikasi diteke literatura zaarreen: agitz jatorragoak ziran orduko izkribatzalleak, zabarrak izanda ere, oraingo idazle garbi ta landuak baño.
- 3) Iztegi, berriz, zer esanik ez. Agitz obeak eta aberatsagoak aiekgu baño.

- 4) Garbizaletasuna sortu zen ezkeroztik izkuntzan aski errotu ta finkatu diran itz-berri batzuk, ezin baztar ditezke, ta egiten saiatzea bera zeñtugabekeria izango litzake. "Idatzi" ta "Aberri" esate baterako.

ITZ MORDOLLOAK ETA ITZ GARBIAK

Antziñako Literaturan (ikus Kardaberatz, esaterako) eta erriak darabilen euskeran (Eibar'ekoan, konturako) zabarkeriak ekarri dituen erderakada guziak ezin artu ditezke aintzakotzat. Elizetako sermioletan, berriz, maiz entzuten diran "miserikordiak", "eternidadeak", eta abar, mordollokeri utsak dira, "urrikari" ta "betikotasun" esanaz ere mundu guziak konpreni dezakelako.

Bañan itz bat edo beste latiñeratik edo erromantzeratik datorrelako euskeratik baztertu nai izatea, oreka galtzea da, ta ala egingo ba genu kaltegarria izango litzaioke euskerari. Arrankura, arrasto, ernegu, borondate, barkazio, adimentu, ta auen erako ekar genitzazken anitz geiagok, bizitza sendoa dute euskeran, zaarrak dira arras, aspaldi-aspaldidanik ezagutzen ditugu izkuntzan sartuak, euskaldun guziak darabilzkite, euskal kutsua dute, eta alakoak kenduz, bizidun zati bat moztuko genioke euskeraren gorputzari.

Erri jatorrean eta Literaturan zear etengabe ikusten diran orrelako itzak, ez dira iñola ere mordolloak, txit jatorrak baizik. Latiñeratik datozkigu noski. Ta, zer guri? Kelteratik etorri zaizkigunak ere baztertzen asiko al gera? Begitan artuko al ditugu germaneratik datozenak? Eta sanskriteratik itsatsi zaigunaz zer egingo dugu? Erauzi ta bota egingo ote ditugu denak?

Inglesak latiñeratik atxiki zaizkien itzak kentzen asiko ba lira, iztegiaren irurena galduko luteke. Ez dute egin. Eta ez egiñagaitik ere, mamia galdu al du ingleserak?

Ala ta guziz ere, gaur edo oraintsu sartu diranak beste kontu bat dira. Nik ez dut esan nai "bentana" ta "kaballo" onartzen ditudanik, aien euskal kide jatorrak baditugu-ta. "Bentana" ta "kaballo" gañera ez dira zaarrak, eta ez euskalki guzietan sartuak ere.

Puntu ortan erdian geratzea gauza zailla da, alegia; ta neu ere erdi ortan nagoenik ez dizuet agintzen. Egon nai bai, ordea.

Zabarkeritik iges egin bearra, bai: baña garbizalekerian erortzeke. Orra oreka billagarri ta arantzatsua.

Eta lortu al izateko, bide bat besterik ez dugu: etimolojiak utzi, itzen arrazari ta etorkiari ez begiratu, ta bakar-bakarrik itz oriek euskera jatorrean bizitza izan ote dutenentz ikusi. Ortaz gañera, gaur bertan baldin ba dute ere, obe. Ots: euskera biziak beretu dituen itzak diran edo ez diran jakin.

ITZEN ADIRAZKAIAK

Batzuen ustez, esanai edo adirazkai bakarra izan bear du itz ba-koitzak, eta ezin ditzazke berriak artu. Itz batek, ortaz, orain da gero, aspaldiko bere esanaia duke bakarrik, eta ez besterik. Aldakaitzak eta bizigabeak lirake itzak.

Ene aburuz, ordea, au ez da sekulan gertatu izkuntza batean ere, izaki ondo biziak bait-dira itzak.

Gauzak aldatu-ala, aiei dagozkien itzak ere adirazkai berriak ar-tzen dituzte. Euskeran, ba, ala gertatu bear.

EUSKALKIEN ITZ BEREZIAK

Eskualde batean edo batzutan erabiltzen diran itzak euskera oso-tuan besteri begiratu gabe sartu nai izatea, bidezko ez da. Obe da, noski, ia zokoratuta dagoen itz jator bat zuzpertzeta, izkribu guzietan barreiatuz, erderatiko itz itsusia artzea baño.

Baña kontuz ta pixkanaka egiten baldin ba da, bakarrik.

Bestela, naspil gorria jarri ta iñork ulertuko ez duen izkera naa-sia asmatzen ba dugu, galgarri ta kaltegarria izan diteke.

“TXILLARDEGI”



Zein eder—dio Mark Twain'ek—den onbidetsu izatea! Eta alaber besteei esatea izateko, ta au bai dela erraza!